

PROBA ESPEZIFIKOA

2016ko PROBA

HISTORIA

PROBA

ERANTZUNAK





1. Testu-iruzkina. (4 puntu)

Konferentzia Afro-asiarrak mendeko herrien eta kolonialismoaren arazoak eztabaidatu ditu, bai eta haien ondorio diren gaitzak ere, herriak arrotzaren morrontzapean egotea, arrotzak eskuperatuak eta esplotatuak. Konferentzia puntu hauetan ados dago:

F) Mendeko herrien arazoei buruzko deklarazioa

1. Deklaratzea kolonialismoa, bere adierazpide guztietan, laster amaia eman behar zaion gaitz bat dela.
2. Deklaratzea herriak arrotzaren morrontzapean egotea, arrotzak eskuperatuak eta esplotatuak egotea, gizakiaren oinarrizko eskubideak ukatzea dela, Nazio Batuen Gutunaren kontrakoa dela eta munduko bakea eta lankidetzaz oztokatzen duela.
3. Deklaratzea herri horien askatasunaren eta independentziaren aldeko kausa babesten duela.
4. Potentzia interesatuei dei egitea askatasuna eta independentzia eman diezaieten herri horiei.

*Mendeko herrien arazoei buruzko deklarazioa
Bandung-eko Konferentzia Afro-asiarra, 1955-04-24*

EGIN EZAZU IRUZKIN BAT TESTUARI BURUZ:


- Sailkapena eta ezaugarriak
- Ideia nagusiak
- Testuinguru historikoa
- Konklusioak

2. Ordenatu itzazu kronologikoki informazio hauek. (2 puntu)

- A. Gorbatxov SESBko lehendaritzara iristea.
- B. Nasser Egiptoko lehendakari.
- C. Austria, Suedia eta Finlandia Europar Batasunean sartzea.
- D. Tito jenerala hiltzea.
- E. Estatu Batuetako armada Vietnamen esku hartzen hastea.
- F. Gandhiren erailketa.
- G. Europako Parlamenturako lehenengo hauteskundeak.
- H. Kubako misilen krisia.
- I. Frantsesen porrota Dien Bien Phu-n.
- J. J. Carter Estatu Batuetako lehendakari hautatzea.



3. Egin ezazu mapa honen iruzkin labur bat. (2,5 puntu).



4. Defini itzazu, labur, termino hauek. Zerrendako seietatik hiru hautatu behar dituzu. (Ariketa osoa: 1,5 puntu. / 0,5 puntu definizio bakoitzeko).

1. Ingalaterrako gudua.
2. Locarnoko espiritua.
3. Sistema bipolarra.
4. Suezko krisia.
5. Camp David-eko akordioak.
6. Brezhnev-en aroa.



• **KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK**

Galdera bakoitzaren ondoren, dagokion puntuazioa ageri da. Guztira, 10 puntu dira.

• **EBALUATZEKO IRIZPIDEAK**

Irizpide orokorra

Erantzunen zuzentasuna, azalpenaren argitasuna eta kalitatea, egituratzea (batez ere, testu-iruzkinean), lexikoaren kalitatea eta hizkuntzaren zuzentasuna baloratuko dira.

Irizpide espezifikoak

- Zehaztasunez, koherentziaz eta era ordenatu batean erantzuten die galderi.
- Zuzen interpretatzen ditu mapak, grafikoak eta estatistika-taulak.
- Zuzen iruzkintzen ditu, alderdi nabarmen guztietan, emandako testua.

GALDEKIZUNEN ETA CURRICULUMAREN ARTEKO LOTURA

GALDEKIZUNA	EDUKI-BLOKEAK
1.a	3. blokea
2.a	1-6 blokeak
3.a	2. blokea
4.a	1-6 blokeak

• **EBAZPEN ORIENTAGARRIA**

1.

Sailkapena eta ezaugarriak

- Iturri primarioa. Laburpena.

Ideia nagusiak

- Kolonialismoak herrialde kolonizatuen gainean ezartzen duen injustizia eta metropolietatik emantzipatzeko eskubidea agerian jartzea.

Testuinguru historikoa

- Hirugarren Munduko herrialdeetako asko independentziara iritsi berriak ziren aldi kolonialaren ondoren, eta nazioartean oso protagonismo txikia zuten. Blokeen arteko gatazkaren dinamikaren eraginez, batarekin edo bestearekin lerrokatzera behartuta zeuden.



- Bandung-eko Konferentzia Afro-asiarra 1955ean

Asian deskolonizatutako lehenengo bost herrialdeek egin zuten deialdia: Pakistan, India, Indonesia, Zeilan eta Birmania. Nehru izan zen bultzatzailea. Lider indiarra kezkatuta ikusten zuen gerra hotza Asiara hedatzen ari zela Koreako gatazkaren ondoren, eta kosta ahala kosta galarazi nahi zuen Asia aurrez aurreko bloketan zatitzea, zeren eta baitzirudien SEATO sortzeak eta aliantza txino-sobietarrak hori iragartzen zutela.

Bost herrialdeek konferentzia baterako deia egitea erabaki zuten, Bandung hirian egiteko, Indonesian, 1955eko apirilean. Hogeita bederatzi herrialdek hartu zuten parte: 23 Asiakoak ziren, Asiako ekialdekoak, eta 6 Afrikakoak, haietatik 4 Afrika beltzekoak. Txina nazionalista eta Israel ez ziren gonbidatuak izan, Txinako Herri Errepublikaren eta herrialde arabiarren boikota saihesteko, hurrenez hurren. Eta Hegoafrikar Errepublika ere ez, *apartheid*-politikagatik gaitzetsia. Artean independentzia lortua ez zuten Magrebeko herrialdeen ordezkariak (Maroko, Aljeria eta Tunisia) behatzaileak bidali zituzten konferentziara.

Konferentzian, uste izatekoa zen bezala, artean Afrikan nagusi zen kolonialismoa eta *apartheid*aren sistema arrazista aho batez gaitzetsiak izan ziren. Halaber, aho batez dei egin zioten mundu garatuari laguntza eman zezan azpigarapenaren eta pobreziaaren aurkako borrokan. Azkenik, estatuen arteko erlazioei zegokienez, bost printzipio adostu ziren, Sukarnok sortuak eta Nehruk ezagutaraziak. Printzipio horiek bihurtuko ziren gerora lerrokatu gabeko herrialdeen mugimenduaren ideia nagusi.

2.

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
F	B	I	H	E	J	G	D	A	C

3. Mapak aliatuen Siziliako inbasioa irudikatzen du. 1943ko uztailaren 9tik 10erako gauean hasi zen, eta abuztuaren 17an amaitu zen aliatuen garaipenarekin. Uhartearen inbasioaren izena Husky (eskimal) Operazioa izan zen, eta berarekin hasi zen Italiako kanpaina.

Italiaren inbasioa aliatuen operazio anfibio eta aerogarraiaturik garrantzitsuena izan zen. Erresuma Batuko, Kanadako eta Estatu Batuetako armadek parte hartu zuten Ardatzaren indarren soldadu italiar eta alemaniarrei uharte kentzeko.

Husky Bigarren Mundu Gerrako ordura arteko operazio anfibio eta aerogarraiaturik handiena izan zen, hondartzetan lehorreratutako gizon kopuruari eta hedaturari dagokienez. Estrategikoki, aliatuen planifikatzaileek jarritako helburuak lortu zituen Siziliako operazioak. Ardatzaren aireko eta itsasoko armadak uhartetik kanporatuak



izan ziren; Mediterraneoan itsasbideak garbi gelditu ziren, eta Faxismoaren Kontseilu Handiak eta erregeak Mussolini atxilotu zuten. Aliatuek Italia inbaditzeko bidea zabalik gelditu zen.

Afrikako iparraldeko kanpainaren garaipenaren ondoren, aliatuek Sizilia inbaditzea erabaki zuten, Mediterraneoan nabigatzen zuten merkantzia-ontzientzako mehatxu italo-alemaniarra neutralizatzeko. Aliatuek ongi ebaluatu zuten Benito Mussoliniren posizio politikoa, eta iragarri zuten Siziliaren konkistak arriskuan jar lezakeela hark gobernuan zuen posizioa. Sizilia inbaditzeko erabakiak Estatu Batuetako jeneralen oniritzia izan zuen, baina gero uko egin zioten Italian barrena jarraitzeari, zeren, haien ustez, horrek baliabideak desbideratuko baitzituen fronte sekundario batera eta, hala, hainbeste itxarondako Frantziako lehorreratzea berriro atzeratuko baitzen. Sir Winston Churchill Erresuma Batuko lehen ministroak, berriz, Italian barrena aurrera egitearen alde agertu zen –"Reich-aren sabel leuna" deitzen zion berak–, baina gertakariak arrazoia eman zieten estatubatuari.

4.

1. Ingalaterrako gudua.

Britainiarrek itsasoan zuten nagusitasunak eragotzi zuen uharteak inbaditzea. Hitlerrek aireko gerra hautatu zuen herrialdeko instalazio industrial eta militar nagusiak suntsitzeko eta, gainera, populazioaren adorea hondoratzeko. 1940ko uztailaren erdialdetik azarora bitartean, Ingalaterrak bonbardaketak jasan zituen behin eta berriz. Azaroaz geroztik, bonbardaketak bakandu egin ziren, baina itsaspeko gerrak blokeo gogorra ezartzen zien ingelesei eta Estatu Batuek bidalitako hornigaien gero eta mendeanago uzten zituen. Estatu Batuak, artean, neutralak ziren, baina 1940ko ekainaz geroztik armak bidaltzen zizkieten britainiarrei.

2. Locarnoko espiritua.

1924tik 1929ra. Nazioarteko harremanetako egonkortasun- eta elkarrizketa-aldi baten hasiera izan zen. Faktore hauek lagundu zioten elkarrizketa horri:

- Nazioarteko egoera ekonomikoaren hobekuntza; oparotasun ekonomikoak lagundu egiten dio hurbiltze politikoari.
- Frantzia, Alemanian eta Erresuma Batuan politikari bakegileagoak izatea: Aristide Briand, Gustav Stresemann eta James Ramsay MacDonald, hurrenez hurren.
- Estatu Batuen Europarekiko jarrera-aldaketa, batez ere haren suspertze ekonomikoari dagokionez.

Locarnoko Konferentzia 1925ean izan zen, eta Frantzia, Alemania, Erresuma Batu, Italia eta Belgikaren ordezkariak parte hartu zuten. Frantziaren eta Alemaniaren



arteko adiskidetzearen hasiera ekarri zuen, eta akordio garrantzitsuak egin ziren zona desmilitarizatuen eta gerrako kalte-ordainen arloetan.

"Segurtasun kolektiboa" eta Briand-Kellogg Ituna (1928).

Nazioen Ligak armagabetzearen gaiari heldu zion. Horretarako, nazioarteko komite bat sortu zen bost urtez egoera aztertzeko eta Armagabetze Konferentzia bat prestatzeko.

"Segurtasun kolektibo"aren alde ere lan egin zen, eta Gerrari Uko Egiteko Itun Orokorra sinatu zen. Aristide Briand Frantziako Kanpo Arazoetako ministroaren eta Frank B. Kellogg Estatu Batuetako estatu-idazkariaren ekimena izan zen; horregatik, Briand-Kellogg Ituna esan zitzaien. Sinatzaileak Frantzia, Estatu Batuak, Alemania, Erresuma Batua, Belgika, Italia, Japonia, Polonia eta Txekoslovakia izan ziren. Tratatuak gaitzetsi egin zuen gerrara jotzea nazioarteko desadostasunak ebazteko, eta zabalik gelditu zen beste herrialde batzuen atxikimendua jasotzeko.

3. Sistema bipolarra.

Mundu bipolarra (1948-1955). Bigarren Mundu Gerraz geroztik, "Gerra Hotza" izeneko aldi bat hasi zen. Estatu Batuen eta Sobietar Batasunaren arteko etengabeko tentsio-egoera adierazi zen izendapen horren bidez. Alemaniaren zatiketak eta Koreako gerrak bi bloketan banandu zuten mundua: mendebaldeko blokea, Estatu Batuak antolatua, eta bloke komunista, SESBk antolatua. Bloke bakoitza bere zona defendatzen saiatzen zen arerioen blokeak aurrera ez egiteko. Washingtonek eta Moskuk askotariko mekanismoak erabili zituzten helburu horiek lortzeko. Bitartean, deskolonizaziotik ateratzen ari ziren herrialdeek logika bipolar hori gaitzetsi egin zuen mugimendu bat sortzen saiatu ziren.

4. Suezko krisia.

Suezko kanaleko krisia (Suezko kanpaina, Suezko Gerra edo Kadesh Operazioa ere deitua) gerra bat izan zen, Egiptoren lurraldean piztu zena 1956an. Gatazkan, elkar jo zuten, batetik, Egiptok, eta, bestetik, Britainia Handiaren, Frantziaren eta Israelen arteko aliantza batek, Gamal Abdel Nasser buruzagi egiptoarrak Suezko kanala nazionalizatzearen ondorioz. Europako bi estaturen eta Israelen arteko aliantza horren atzean interes komunak zeuden: ekonomikoak, merkataritzakoak eta politikoak. Kanalaren nazionalizazioaren ondorengo hilean, isilpeko akordio bat sinatu zen Sèvres-en, Paristik gertu, Britainia Handiaren, Frantziaren eta Israelen arteko lankidetzaren militarra ezarri zuena Egiptori aurre egiteko.

5. Camp David-eko akordioak.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2016ko MAIATZA

HISTORIA OROKORRA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2016

HISTORIA GENERAL

Egiptoko Anuar as-Sadat rais-ak, AEBko Carter presidenteak eta Begin Israelgo lehen ministroak sinatu zituzten akordio horiek AEBko presidentearen Camp David-eko egoitzan, Washingtondik hurbil, 1978ko irailaren 17an.

Kissinger-ek hasitako "urrats txikien" politikaren ondoren, akordio horiek Washingtonen ahaleginen arrakasta adierazi zuten. Izan ere, Kairora eta Tel Avivera hurbildu eta palestinarren arazoa konpondu nahian ari zen Washington. Egiptoko liderrak egin zuen lehen urrats ikusgarria: Jerusalema joan zen 1977ko azaroaren 19an. Begin, Likud alderdiko buru nazionalista sutsua, negoziazio-mahaira eramateko, beharrezkoa izan zen AEBren presio guztia.

Bi esparru-hitzarmenek osatzen zituzten akordioak. Lehenak Ekialde Ertainean bakea lortzea zuen helburu, eta asmo-dokumentu huts bat besterik ez zen izan. Bigarrenaren xedea bi herrialdeen arteko bake-itun bat sinatzea zen, eta hau izan zen emaitza: bake-ituna sinatu zuten Egiptok eta Israelek 1979ko martxoaren 26an. Itun horren xedapenak aplikatzearen ondorioz, Israelgo armada erretiratu egin zen Sinai penintsulatik 1982ko apirilean. Egiptok lurralde osoaren subiranotasuna berreskuratu zuen, eta Israelek, azkenean, herrialde arabiar batekin bakea sinatzea lortu zuen.

Camp David-eko akordioek iraultza ekarri zuten Ekialde Ertaineko panorama politikoa. AEBk garaipen diplomatiko garrantzitsua lortu zuen. Egipto, berriz, zigortu eta bakartu egin zuen mundu arabiarra; Sadat traidoretzat jo zuten arabiar askok, eta komando islamiar batek hil zuen 1981ean.

6. Brezhnev-en aroa.

Urte horietako ezaugarri nagusia geldialdia izan zen. Ezikusia egin zitzaion krisi bati, zeinaren kanpo-zantzuak gero eta nabarmenago agertzen baitziren. Behar zen erreforma ez zen planifikatu, eta degradazioa agerian gelditu zen politikaren, ekonomiaren eta Administrazioaren ustelkerian, produktibitatearen, kalitatearen eta nekazaritzako errendimenduen jaitsieran, zerbitzu publikoen utzikerian eta abarretan.